

## SUARI

Kaixo, Iñaki:

Ez dakit oso ondo nola hasi, hain egiten baitzait arraroa zuri idaztea. Anak proposatu dit, berak ere inoiz idazten diola Ramoni esanez. On egiten omen dio. Badakit zuri txorakeria bat irudituko zitzaizula, kontu hauek guztiak hala iruditzen zitzaizkizun eta. Edonola ere, behar dudala uste dut nire barne korapiloak askatzea eta ideiak nolabait ordenatzea, eta hartara noa.

Bakarrrik nago etxean, klasean Naiara. Ez nuen gogoan gure etxea hain isila zenik. Dena dago bare, autoen edota auzokideen hots lausoak baino ez dira aditzen tarteka. Hiletaren ondoren ez nuen nahi bakarrrik egotea besterik, bazter batean eseri eta negar egitea malkoak lehortu arte; aurreko egunetako jende zirimola, dolu-minen emari etengabea eta behako penatuak aienatzea. Eta bakarraldia iritsi zaidanean erabat amildu naiz. Azalgaitza da sentitzen dudana hutsunea. Lehen oharkabean pasatzen zitzaizkidan mila zertzeladaz jabetzen naiz orain. Leihotik begiratzen dut eta mundua ageri zait distiratsu beiraren bestaldean. Eta izuti ni alde honetan, uzkurtuta, atetik irten eta urratsak ematen hasteko beldurrez.

Gauak bereziki dira gogorrak. Erraldoia egiten zait ohea. Lehen egunetan Naiarak egiten zuen nirekin lo. Lasaitu egiten ninduen norbaiten epela alboan sentitzeak, urte luzeak izan baitira elkarrekin, makina bat gau. Bitxia egingo bazaizu ere, hainbeste errietaren ondoren, zure zurrungak ere faltan botatzen ditut. Marka da gero! Lotarakoan arnasa bizitzen hasi zitzaizunean pentsatu nuen horretaz lehen aldiz, zure zurrunga lasaiak arnasestu urdurian bihurtu zirenean. Artega sentiarazten ninduten hauspo trakets haiek, loa biltzea galarazteraino. Zure gaixotasunaren oroigarri etengabea iruditzen zitzaidan, arnasaldi bakoitzean gogoraraziz Hura han zegoela eta ez zela joango.

Ez zenion bere izenez ere deitzen, entzungo zizun beldurrez edo. Hura zen zuretzat, eta Hura guretzat ere, oraina eta etorkizuna lapurtzera etorritako mamua. Aurpegia jartzeko esaten nizun nik, begietara begiratu eta garaituko genuela garrasi egiteko. Baietz erantzuten zenidan, egingo geniola aurre, zeure hitzak sinestu gabe. Medikuz asmatu ote genuen galdetu izan diot behin baino gehiagotan neure buruari, beste ospitale batean gauzak desberdinak izango ote ziren. Ez dut uste norbere burua zigortzeak merezi duenik, dena den. Ederra da bizitza, ez dago zalantzarik; baina haginak erakusten dituenean nekez aurkitzen da ihesbiderik.

Hara, iraganean ari naiz idazten ohartu gabe. Subkontzienteak salatzen gaituela izango da agian. Gero eta urrunagoa egiten baitzait biok geunden garaia, irudipen soila izan zela begitantzen zait batzuetan. Mugikorreko argazki zaharrei begira harrapatzen dut inoiz neure burua; zure zimurrak nolakoak ziren gomutatuz, zure soinaren formetan erreparatuz. Haserretu egiten naiz zerbait ahantzi dudala konturatzean, irudiak ezabatzen doazela jabetzean, esku ahurrean gordetako elur pusketa urtzen doala sentitzean. “Maite al nauzu?” galdetzen zenidan erkinen sentitzen zinenen. Baietz erantzuten nizun nik, noski baietz, eta kopetan musu eman. Besarkatu egiten ginen segidan eta negarra elkarbanatu. Ez dut uste gezurra nioenik, maite izan baitzaitut. Baina ez zen, segur aski, zuk entzun nahi zenuen baiezkoa nik ematen nizun hura. Kolore asko ditu maitasunak, eta gure artekoak bazuela ortzadarraren antzik esango nuke.

Makaltzen ikusi zaitut, zimeltzen egunez egun. Osasuntsu mendi tontorrek zapaltzetik gurpil-aulkiaren morrontzan erortzera. Zure oinak izan naiz, zure hegoak izan guran. Minaren txingarrean, gorputzaren ahulezia horrek harrotuta piztu izan dira zugar amorrualdi bizienak. Dena zen beltz orduan zuretzat, inguruan geunden guztiok demonio. “Hobe bere garaian banandu izan bagina”. Arrazoi zenuen beharbada, saminetik hitz egiten bazenuen ere. Urrundu egin ginen nonbait, noizbait, nolabait; eta ez naiz gaixotasunaz ari. Hasiera-hasieratik izan ziren pitzadurak gure artean, ikusi nahi izan ez bagenituen ere, beti beste aldera begiratu badugu ere. Oso gazte egin ginen guraso, goizegi estutu kateak. Zuloen gainean hasi ginen etxeak eraikitzen, zimenduak behar bezala finkatzeko. Aita ona izan zara, eta ziur nago neskatoak ere hala uste duela. Ez zara,

ordea, nik behar nuen senarra izan, eta zuk ere ondotoxo zenekiela hori uste dut. Beharbada, ez nintzen ni ere ondoan nahi zenuen emakumea izango, hala sumatu bainuen zugar behin baino gehiagotan. Elkar engainatu ote dugun ideia izan dut sarri nire buruan; edota are txarrago, geure burua engainatu ote dugun.

Izango dira bost urte Rikardo gure lantegira iritsi zela. Hasieran ez nion jaramon gehiegirik egin. Banatu berria zen, eta bulegoko emakume batzuekin kuxkuxean eta maite jolasetan ikusten nuen egunero. Ez zidan batere graziarik egiten. Kafe makinan biok bakarrik aurkitu ginen batean egin nuen lehen aldiz berarekin hitz. Hamar minutu eskas izango ziren, baina nire barruan zerbait piztu zela antzeman nuen segidan. Ez dakit bere irribarrea, begiratzeko modu atsegina edota bere jario lasaia izan zen; zerbait bai, inondik ere, eta zirrikitutik bete-betean iritsi zitzaidan. Bilatu egiten ninduela ohartu nintzen hurrengo egunetan, bere hizketa-lagunekin gero eta gutxiago aritzen zela. Emakume sentitzen hasi nintzen berriro, Iñaki, zergatik ez esan, oraindik gizon batek desira nintzakeela pentsatzeak puztu egiten ninduen. Gurea hoztuta zegoen zeharo, eta urteak zeramatzan hala. Urteak ziren gure harremana ez zela gurea. Zuk zurea egiten zenuen eta nik nirea; eta hartara geunden gustura. Algaraka aurkitzen zintudan zurekin zertxobait hartzeko tabernara hurbiltzen nintzen bakoitzean, eta betozkoa iluntzen nabaritzen zintudan ni ikustearekin batera. Noiz izan zen zure azken fereka? Noiz gure azalek azkenengoz elkar aurkitu laztankiro? Beti entzun izan dut egiak min ematen duela. Baina ustea daukat hura estaltzeak are min gehiago dakarrela. Gure arimak eta kontzientziak ez baitute amarruez ulertzen, eta gordetako egia horiek kristal pusketen gisara errotzen dira larruan, odol errekek eraginez askatzen ez diren artean. Ez ginen zoriontsu elkarrekin, eta biok genekien hori.

Ez dizut sekula gehiegirik kontatu Rikardori buruz. Argi nahi nizuke esan ez dudala inoiz berarekin ezer izan. Asko hitz egiten genuen lanean eta mezuak bidaltzen genizkion elkarri. Oso ondo konektatzen dugu eta bat gatoz gauza askotan, baina ez da ezer gehiago izan. Maite ninduela esan zidan behin, nirekin bizitza berri bati ekitea gustatuko litzaiokeela. Pozik entzun nuen, ez dizut gezurrik esango. Ezetz erantzun nion, hala ere, ezkondata nengoela eta senarra maite nuela. Neure buruari gezurretan ari nintzela

banekien arren neurri batean, zuzen egite horren beharrez; eta beldurrez, batez ere beldurrez. Zu uzteko beldurrez, familia haustekoaz, Naiararen mesprezuarenaz, etorkizun ezezagunarenaz, amets punpak hauskorregiak izatearenaz. Zoriontsu izateko ikaraz.

Eta orduan hasi zinen gerriko minekin, orduan iritsi zen Hura. Gainbehera etorri zen nire mundu txikia, aurrez oreka gehiegirik gabe eusten zena. Rikardorekin harreman oro eten nuen, eta lanean ere ahalegintzen nintzen saihesten. Lotsa gorrituta, zertan ote nenbilen galdezka neure buruari, senarrak ohean gaixo zirauen artean. Etxeko hormetan errefuxiatu nintzen, eta zure zaintzara bideratu ordu eta egunak. Ez naiz ezertaz damutzen, badakit eta une bakoitzean egin beharrekoa egin dudala; uste nuena, behinik behin. Ez dut ezer gorde, azken indar alea ahitu arte izan nauzu ondoan, eta harro nago horretaz. Gaur da, eta lotsarik gabe diot, ezeren errudun sentitzen ez naizen eguna. Ez naiz bere bidea, bere zoriona, libreki eta inori minik eman gabe bilatu duen emakumea besterik.

Ari naiz gutxika-gutxika zulotik ateratzen; ari dira negar putzuak lehortzen, eta mukizapiek gero eta gehiago irauten didate poltsikoan. Hasieran, hainbat hilabetez gure barruti izan ziren hormek irentsi ninduten erabat. Lanera itzultzeak hauspo berria eman zidan. Behar nuen etxetik irten eta bizitza arruntera itzultzea, kaskarrean hozka nerabiltzan mamuak isilarazteko baino ez bazen ere. Rikardok jakin zuen distantzia mantentzen, eta ez zen lankide bat baino gehiago izan. Pasa den astean idatzi zidan kafe bat hartu eta hitz egiteko geratuko ote ginen galdetuz. Ezetz erantzun nion enegarrenez, goizegi zela oraindik. Eta hala dela uste dut. Ez da beti goizegi izango, alabaina. Ez dut uste ezer okerrik egin dudarik. Maitasuna izan daiteke samur eta goxo, baina baita kartzelan bihurtu ere. Hala izan zela guretzat uste dut, eta bikoteari dagokio orduan erabakia: giltzen bila hasi, edota iraganeko oihartzun itzalien gatibu iraun. Bizitzaren trenak ez du itxoiten, eta geralekuan zalantzan dirauena bertan gelditzen da, kieto demonio.

Noraezean topatzen dut orain nire burua, nora jo eta nola aurrera egin argi ez daukadala. Tarte bat behar dudala uste dut, gertatu den guztia prozesatu eta asimilatzeke

pixkanaka-pixkanaka. Naiarak esaten dit bidaia bat egin behar dugula, ihes egun batzuetarako. Kanarietara dio berak, denbora onaren arrastora. Ez gara gu lar bidaiazaleak izan. Nik zugan aurkitzen nuen beti aitzakia, neuri ere errezeloa ematen zidan arren. “Iñaki ez dago etxetik mugitzerik eta!”. Baina beti izan dut leku berriak ezagutzeko eta hegazkinean ibiltzeko apeta, eta nago badela garaia izuak alde batera utzi eta bizitzaren trenari bete-betean heltzeko. Nago barruan gordetzen ditugun arantzak ez direla ezereztan besterik gabe, eta zuntzak urratzen dituztela gure baitan. Nago arima araztu behar dela sarri, eztenak ezabatu eta zauriak sendatu. Eta hartara noa.

Biluztu natzaizu lerro hauetan, eta uste dut zintzo eta lau jaso dudala paperean nire gogoaren marmar isilezina. Suari emango diot orain, haren garrek zuregana hitzok eraman ditzaten. Errautsak errautsei. Trenak naraman tokira naramala, beti eramango zaitut bihotzean.

Zure emaztea,

Nerea